

KUKUXUMUSUREN KALERATZEEN ERREALITATEA

GURE ERREALITATE GORDINA

Oraingo honetan, prentsarako komunikatua KUKUXUMUSU S.L.-ko langile **ohiek** prestatu dugu, ez enpresak.

KUKUXUMUSU S.L.-ko bulegoen eta biltegiaren egoitza nagusian guztira 37 langile ginen.

Enpresak, orain dela bi hilabete, iraungipeneko Enplegu Erregulazio Espediente bat aurkeztu zuen, 23 kaleratzeekin eta hiru pertsonarentzako %50eko etendurako Enplegu Erregulazio Espediente batekin. Ondorioz, **kaleratzeen** portzentajea **langileen %62koa** da.

Iraungipeneko Enplegu Erregulazio Espedienteari buruz, KUKUXUMUSU S.L.-k irmo esan zuen: **“Ez da negoziagarria”**. Hori izan da enpresak langileen batzordearekin izan duen jarrera lehenengo egunetik azken egunera arte, zor zigutena ez zigutela ordainduko zioten mehatxu ezkutuei aurre egin ahal izan gabe. Horrela gaude orain, kaleratuta eta gure irteeraren %50eko ordainarekin (20 egunetarik 10 egun, arrazoi ekonomikoak direla eta, egoeraz aprobetxatzen dira), gainerakoa abuztuaren 31era arte atzeratuz, data hori azken eguna bezala zehaztuz. Baina **nola sinetsiko diegu**, gure lankideetako 5 beren kalte-ordainaren zatia jaso gabe joan baitira!

Azken lankide horiek hilabete bat gehiago egon behar izan zuten, Iruñeko biltegiaren itxiera prestatzen, biltegi hori **Kataluniara eramateko, bere kudeaketaz eta ustiapenez beste enpresa bat arduratuko baita.**

Nola sinetsiko diegu, oraindik lanean jarraitzen duten KUKUXUMUSU S.L.-ko langile gutxi horiek, gure lankideek, zalantzan eta kezkatuta lanean jarraitzen badute (*“sobre la marcha”* edo *“arazoak sortu ahala konponduko ditugu”* da zuzendaritzak eman duen erantzun ofiziala).

Soldataren %20ko jaitsiera izango dutela argi esan diete, eta **momentuz bi nominaren ordainketaren atzerapena** izango dutela ere bai. Argi dago **KUKUXUMUSUSU S.L.-ren eraiste zuzendaritzak aurrera eraman duen estrategiak pertsona horien etorkizun profesionalari begira ez duela itxaropen handirik eskaintzen, eta gainkarga eta segurtasun eza nagusi diren egoera batean lanean ari dira.**

Are gehiago, bere 4 lankidek **KUKUXUMUSU S.L. utzi beharko dutela jakinik, bere enpresetako batean lanean hasteko. Aipatu enpresa horiek ere erregulazio prozesuan daude.**

Horrek ere ez digu kaleratuoi zor digutena jasotzeko itxaropenik ematen.

Dendarik ez zutela itxiko baieztatzen zuten beren prentsa oharretan, baina langileoi erakutsi ziguten bideragarritasun planean egin behar zuten lehenengo ekintza horixe bera zen, **denden itxiera progresiboa 2013an.**

Horretarako, sistema haientzat baliagarria da, kalte-ordain miserableak, soldata miserableak, lan erreforma aprobetxatuta. Kritikatzen dute, baina betikoak horretaz baliatzen dira, beti bezala, beren onurarako. Dirua irabazten dela? Diru hori eramaten dugu. Dirua galtzen dela? Langileei ez diegu ordaintzen. Hori bai, zuzendari nagusi berri bat enpresen talderako kontratatatu dute jadanik...

KUKUXUMUSU S.L.-ren jabetzak bere kudeaketa txarra onartu du, baina azkenean guk ordaindu beharko ditugu beren hutsegiteak.

Langileen kolektibo moduan enpresari errespetua gorde diogu (enpresa maite eta altxa dugu urteotan, 18 urte baino gehiagotan gutako hainbatek), nahiz eta urteotan gure lan baldintzak

pixkanaka urritu diren, nahiz eta engainatu egiten gaituztela sentitu dugun, enpresak **kudeaketa txarra** egin arren, eta nahiz eta enpresak gastu ulertezinak egin dituen eta egiten dituen; **enpresak kanpoan saltzen dituen balioak barruan ez dituen arren**, azken batean.

Gure burua kalean ikustea, agonia-egoeran dagoen lan merkatu batean, ahalegin ugari eta dedikazio handia urte askoan egin ondoren, dagokiguna bermatuta izan gabe, erabakiaren egun berean prentsa ohar itxuraldatu bat irakurrita gainera, nahikoa izan da zenbaki batzuk argitzeko beharra sentitzeko. Izan ere, norbaitek ahazten badu ere, pertsonak eta familiak gara.

Hori da Kukuxumusu S.L.-ren gaur egungo benetako unibertsoa.

KUKUXUMUSU S.L.-ren kaleratutako langileen kolektiboa.